

47. euskal zine bilerera

2024 URRIA 17-20
LEKEITIO

Lehiaketan parte
hartzeko oinarriak

Eman izena: zinebilera.eus    

EUSKAL
ZINE
BILERA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Lehiaketan parte hartzeko oinarriak 47. Euskal Zine Bilerera Lekeitio 2024

PARTE HARTZEA

1. Edozein film egilek har dezake parte Euskal Zine Bileran.

Lanak

2. Euskal Zine Bileraren denez gero, euskara izango da lehiaketara aurkeztu diren lanetan erabiliko den hizkuntza, filmen elkarrizketak edo off ahotsa erabiltzen badira. Euskaraz gain beste hizkuntzaren bat erabiltzen bada, azpiztituluak jarriko dira euskaraz eta azpiztitulu hauek irudira txertatuta joango dira.
3. Lanek gehienez 30 minutu izango dute.
4. Edozein genero edo tratamendu zinematografiko lantzen dituzten filmak aurkeztu ahalko dira. Aukeraketaz kanpo geratuko dira bideoak, iragarkiak, spotak eta bideo korporatiboak.
5. Ez dira onartuko aurreko urteetako edizioetara aurkezturiko lanak ezta 2023ko abuztua baino lehen egindakoak.
6. Ez dira onartuko arraza, sinesmen, etnia, adin, erlijio, sexu, genero identitate, sexu orientazio, itxura fisiko edo pertsonen gaitasunak iraintzen, gutxiesten edo jazartzen dituzten lanak. Hala eta guztiz ere, antolatzaileek ez dituzte bere egiten film laburretan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota isuritako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko erantzukizunik.
7. Euskal Zine Bilerako lehiaketan parte hartzen duten lanak zineman proiektatuko dira edota Euskal Zine Bileraren web orrialdean. Hortaz, parte hartzaileek baimena ematen dute beraien filmak zineman jartzeaz gain, lehiaketako egunetan online jartzeko, ordutegi mugatu baten barnean.

Izen ematea

8. Izen ematea zinebilera.eus orrialdearen bitartez egingo da.
9. Filmak Youtube edo Vimeo bezalako kanaletara igo beharko dira eta pasahitz edo link pribatua izango beharko dute. Izen-emate orriarekin batera:
 - Filmaren esteka eta/edo pasahitza
 - Hiru fotograma
 - Kartela (edukiko balu)
 - Egilearen datu pertsonalak
10. Webgunean jarritako esteka izango da aukeraketa batzordeak erabiliko duena. Aukeraketa izanez gero, epaimahaikideek ere esteka berbera erabiliko dute filmak ikusteko, beraz partaideek esteka aldatetarik gabe bere horretan mantentzeko erantzukizuna dute. Estekaren edozein motako aldatetak lehiaketan parte-hartzeko aukera ukatuko dio partaide/egileari.

Aukeraketa

11. Aurkeztutako lanen hautaketa Aukeraketa Batzordeak egingo du. Sail ofizialean parte hartzeko hautatuei zein kanpoan geratu direnei 2024ko irailaren erdian jakinaraziko zaie erabakia.
12. Aukeraketa egiteko orduan, Lea-Artibai eskualdeko egileen lanak jaialdian egotea bultzatuko da, lehiaketa barnean zein lehiaketaz kanpo.
13. Egileei aukeraketaren berri eman ostean, beraien pelikulak mp4 edo mov HD formatuetan bidali beharko dituzte lehiaketan parte hartzeko.

Sariak

14. Sail ofizialeko lanen egileei sari banaketa ekitaldian parte hartzea errazteko Lekeitio gaua igarotzeko aukera eskainiko zaie. Film bakoitzaren egileari gela bikoitza ziurtatuko zaio. Gaua igarotzera geratu ezin diren egileen kasuan dieta gastuak ordainduko zaizkie.
15. Euskal Zine Bilerako lehiaketan aukeratuak izatean film guztiek jaialdiaren ikurra jasoko dute.
16. Sarituko diren arloak:

Film onenaren saria

— 3.000 €

Zuzendaritza onenaren saria

— 1.600 €

Gidoi onenaren saria

— 1.600 €

Ikusleen saria

— 750 €

Benito Ansola saria

— 1.000 € + hurrengo edizioan lehiaketara zuzenean sartzeko aukera film berri batekin (2000. urtetik aurrera jaiotakoentzat). Kategoria honetan lehiatu nahi duenak izena emateko orriari adierazi beharko du eta eskariari NAN kopia bat erantsi beharko dio.

— Aurrekoek gain, herritarrek osatutako epaimahaia aipamen berezia egin ahalko die zenbait filmeri.

* Sariak erretentzio fiskalari lotuta daude.

17. Epaimahaia sariren bat eman gabe uzteko ahalmena du eta bere erabakiak behin betikoak eta aldaezinak dira.
18. Epaimahaia aurkeztutako lanen artean aipamen berezia egiteko ahalmena dauka. Aitortza honek ez du ordainsaririk izango baina filma urteko palmaresaren parte izango da.
19. Sariak jaialdiaren amaierako ekitaldian jakinarazi eta banatuko dira. Irabazleak edo honen ordezkariak amaiera ekitaldian parte hartuko dute. Hau da, sariak eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da sari banaketa ekitaldian parte hartzea.
* Edozein arrazoiengatik jaialdia ez balitz ospatuko, sariak hutsik geratuko dira.
20. Lehiaketa honetan saria edo aipamen berezia jasotzen duten lanek Euskal Zine Bileran jaialdian emandako ikurra jarri beharko dute bere publizitatean.
21. Egileak haien lanen eskubideen jabe izanda ere, Euskal Zine Bilerako sail ofizialean hautatutako filmak proiektatzeko eta bere plataformetan partekatze baimena izango du, jaialdiko programa edo promozio ekitaldian. Beti ere hurrengo baldintzekin: Irabazi asmorik gabeko ustiapena izango da eta egilearen izena argi utziko da. Filmaren zabalpena ekinga zehaztuz gero, epe tarte mugatu eta egileekin adostuta aurretiaz.

Euskal Zine Bilerako lehiaketa, euskaraz ekoiztutako askotariko lanen erakusleia da, teknika, tratamendu, genero, sorkuntza prozesu eta gai desberdinak biltzen dituen neurrian. Edizio honetan lau sari nagusi ezberdindu dira: film onena (3.000 euro), zuzendaritza onena (1.600 euro), gidoi onena (1.600 euro) eta Benito Ansola saria (1.000 euro). Sari hauek epaimahaikideen esku egongo dira. Horiei ikuslearen saria gehituko zaio (750 euro) publikoak emandako bozkaren bidez aukeratu dena.